




AEBetako jatorrizko herrien oscarra




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Los Angeles (AEB), 1973ko martxoaren 27an. Oscar sariaren banaketa ekitaldian, gizonezko aktore onenaren saria Marlon Brandori eman zioten, *The Godfather* filman egindako lanagatik. Baina Brandok uko egin zion estatutxoa jasotzeari eta, haren ordez, Sacheen Littlefeather ekintzaile apatxea igo zen oholtzara, jantzi tradizionalak soinean, eta komunikatu bat irakurri zuen, AEBetako jatorrizko herriei ematen zitzaizen tratua salatuz. Ekitaldian bildutako aktore eta zinemagile askoren txistuen artean, Hollywoodek jatorrizko herriak gutxietsi eta kriminalizatzen zituela esan zuen, eta hilabete lehenago Wounded Knee herrian abiatutako okupazioa ekarri zuen gogora.

1890ean sarraskia egin zuen AEBetako armadak Hegoaldeko Dakotako Pine Ridge erreserban. 83 urte geroago, AEBetako Gobernuak jatorrizko herriekiko zeukan jokaera hobetzeko eskatzen zuten, eta haiekin ordurarte hitzartutakoa gutxienez betetzeko. Zehazki, tribuen presidente Richard Wilsonen ustelkeria eta abusu praktikak salatu nahi zituzten eta hura kargutik kentzea zen mobilizazioaren helburu nagusietakoa.

Okupazioak 71 egun iraun zuen gutzira, bi ekintzaile hil zituzten, eta okupatzaileek ez zuten berehalako helburua lortu; Wilsonen karguan jarraitu zuen, eta gainera 1974an hauteskundeak berriro irabazi zituen, iruzurra eta mehatxuak medio. Ondorioz, hurrengo urteetan bertakoen aurkako indarkeriak gora egin zuen Pine Ridge erreserban, nagusiki, Wilsonen milizia pribatuaren eskutik –erreserbaz kanpoko arduradunek ez ikusiarena egin zuten–. Amerikako Indiar Mugimenduaren (AIM) arabera, hiru urtetan argitu gabeko 64 hilketa kasu izan ziren erreserban; FBI-ren arabera, ordea, lau besterik ez ziren izan itxi gabeko kasuak.

Eta, hala ere, Marlon Brandoren keinuak eragina izan zuen, negatiboa nahiz positiboa. Oscarrari uko egitearen alde txarra atentzioa neurri batean desbi-



ACADEMY MUSEUM / MPR ARCHIVE

Ezkerrean, Sacheen Littlefeather duela 50 urteko oscar sariaren banaketa ekitaldian. Eskuinean, WOUNDED KNEEko okupazioa.

deratzea izan zen, batez ere, Sacheen Littlefeather ekintzaileari buruzko informazioa azaleratzen hasi zenean.

MEZUA IRITZI PUBLIKORA

Littlefeather (jaiotzez Marie Louis Cruz 1946-2022) ekintzaile eta aktorea zen, eta aitaren aldetik apatxe, yaki eta pueblo herrietako arbasoak zituela zioen. Baina bere senitarteko guztiek ukatu egin zuten hori, familiak jatorria Mexikon, Frantzian, Alemania eta Herbehereetan zuela esanez. Besteak beste, apatxe tribuko arduradunek ere Littlefeatherrek esandakoa gezurtatu zuten. Hortaz, benetako mezua zabaltzea nahi ez zutenen pozerako, Marlon Brandok aktore bat kontratatu omen zuen jatorrizko herrien borroka (eta jantziak) bereganatzeko.

Baina mezua nolabait zabaldu zen. Marlon Brandoren keinuak oihartzun

gehien lortuta ere, beste hainbat pertsona ezagunek bat egin zuten okupatzaileen alde: Johnny Cash abeslaria, Angela Davis ekintzailea, Jane Fonda aktorea, William Kunstler abokatua, Tom Wicker kazetaria... Babes horren eraginez, jatorrizko herrien gaia iritzi publikora iritsi zen, eta herri horietaz zegoen pertzepzioa zertxobait hobetzen lagundu omen zuen, berehalako neurri praktikorik ekarri ez bazuen ere.

Baina berehalako neurri negatibo bat saihestea lortu zuten behintzat, AIMk aitortu zuenez: Brandok eta gainerako pertsona ezagunek kazetariak erakarri zituzten erreserbara, eta AEBetako herritarren nahiz munduko beste hainbat herrialderen begiradapean, armadaren interbentzio bortitza zaildu zuen. Bestela esanda, Oscar sariari uko egiteak Wounded Kneeko bigarren sarraskia saihesten lagundu zuen. ●